



Arartekoaren Ebazpena, 2010eko apirilaren 23koa. Horren bidez, Armiñongo Udalari gomendatzen zaio kale bateko eraikinen zenbakiak jarraitasunez berri ditzan.

Aurrekariak

1. (.....) jaunak kexa bat aurkeztu zion erakunde honi, Armiñongo Udalak erantzunik eman ez zuelako (.....) kaleko 48 A zenbakia gaizki zenbatuta zegoela ikustean.

Interesdunak adierazi digu bizi den eraikineko atariak 48 A zenbakia duela, baina 48 eta 50 zenbakiak dagozkien atarien ondoren kokatuta dagoela. Gainera, bi borda edo txabola dago tartean, eta ez dago jakiterik zer zenbaki duten. Arazo horretaz gain, katastroan bikoizketak daude. Horrek guztiak posta itzultzeko arazoak sortzen ditu, baita postaren arazoaren ondoriozko kalte ekonomikoak ere. Izan ere, banaketa enpresak 48 zenbakira heltzen direnean (ez dauka pisurik), hurrengo 50 dela ikusi eta esku artean duten helbidea okerra dela ondorioztatzen dute.

Interesdunak dio arazoa udalean agertu zuela, eta arazoa bere kabuz konpontzeko esan ziotela. Are gehiago, bere atarian zuzenean 56 zk jartzeko agindu zioten.

Arartekoak Armiñongo Udalari eskatu zion kexak aurkezten zituen arazoaren berri ematea, horren inguruan legezko araudia berriaz aipatuz.

2. Armiñongo alkateak hasierako informazio eskaera honi erantzun zion interesdunak haren etxebizitzaren inguruko eskaerarik formalki aurkeztu ez zuela esanez. Gaia hurrengo udalbatzan aztertuko zutela eta konpontzen saiatuko zirela adierazi zuen, izan ere, herritar horren etxebizitzaren zenbakia aldatzekotan beste etxebizitzarenak ere aldatu beharko dira eta horrek eragozpenak eta kalteak sor zintzakete. Azkenik, zegozkien pertsona guztiei kontsulta bat egingo zitzaieela adierazi zuen.

Jasotako informazioa baloratu ondoren, Udalari adierazi genion arrazoizko eta beharrezkotzat jotzen genuela, administrazio prozedura xedatzen duten arauekin bat eginez, neurriaren eraginak jasango zituzten pertsona guztiak jakinaren gainean jartzea, baina kale bateko eraikinak zenbatzeko zehaztapenerako arautzen diren legezko arauak betetzeko beharra azpimarratzen genuen.

3. Azkenik, alkateak azken jakinarazpenari emandako erantzunean adierazi zuenez, gaia jorratzeko deialdian bertaratutako herritarrek bloke horretako etxebizitza guztien zenbakiak aldatzeak kalte handiagoa sortuko zuela erabaki zuten aho batez, eta beraz, etxebizitza horien zenbakiak zehaztuko lituzkeen informazio





kartel bat jartzea proposatu zuten. Udalak herritarren eskaera onartzea erabaki du.

Erreklamazioa ikusita, kexan adierazitakoa eta jasotako gogoetetan eta informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Besteak beste, Toki Erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudian (1690/1986 Errege Dekretua, uztailaren 11koa (BLMA) eta Estatistika Institutu Nazionalaren lehendakariaren eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiaren 1997ko apirilaren 1eko ebazpena argitaratzea agindu zuen 1997ko apirilaren 9ko ebazpenean arautzen da kexa aurkezten duen gai hori. Apirilaren 1eko ebazpenaren bidez jarraibide teknikoak ematen zaizkie udalei, udal errolda kudeatu eta ikuskatzeko.

BLMAKO 75. artikulua ezartzen du udalerriek eguneratuta izan behar dituztela bide publikoen izenak eta errotulazioa, baita eraikinen zenbakiak ere; eta horren guztiaren berri eman beharko dietela interesa duten herri-administrazio guztiei. Era berean, kartografia ere mantendu behar dute, eta, halakorik ezean, eskumena duen administrazioak egindako kartografian posta helbideen erreferentzia zehatza jarri behar dute.

Beste alde batetik, aipatu dugun ebazpenak honakoak zehazten du eraikinen zenbakiei dagokionez:

“Los Ayuntamientos deberán mantener actualizada la numeración de los edificios, tanto en las vías pertenecientes a núcleos de población como en la parte diseminada, debiendo estar fijado en cada uno el número que le corresponda.

Para la numeración de edificios se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

a) En las vías urbanas deberá estar numerada toda entrada principal e independiente que dé acceso a viviendas y/o locales, cualquiera que sea su uso. No se numerarán las entradas accesorias o bajos como tiendas, garajes, dependencias agrícolas, bodegas y otras, las cuales se entiende que tienen el mismo número que la entrada principal que les corresponde. No obstante, cuando en una vía urbana existan laterales o traseras de edificios ya numerados en otras vías, como tiendas, garajes u otros, cuyo único acceso sea por dicho lateral o trasera se numerará el edificio, teniendo dicho número el carácter de accesorio.

*b) Los números pares estarán **de forma continuada** en la mano derecha de la calle y los impares en la izquierda.*





c) Cuando por la construcción de nuevos edificios u otras causas existan duplicados se añadirá una letra A, B, C..., al número común.

d) Los edificios situados en diseminado también deberán estar numerados.

Si estuvieran distribuidos a lo largo de caminos, carreteras u otras vías, sería aconsejable que estuvieran numerados de forma análoga a las calles de un núcleo urbano. Por el contrario si estuvieran totalmente dispersos deberán tener una numeración correlativa dentro de la entidad.

En general, toda construcción en diseminado debe identificarse por el nombre de su entidad de población, por el de la vía en que puede insertarse y por el número que en ella le pertenece; o si esto no fuera posible, por el nombre de la entidad de población a que pertenece y el número de la serie única asignado en el mismo."

2. Udalek, aipatu dugun legezko araudiaren arabera, bide publikoen nomenklatura, errotulazioa eta eraikinen zenbakiak eguneratuta izateko beharra dute eta, gainera, zenbaki horiek jarraituak izan behar dute, bikoiti eta bakoitietan, kalearen eskuineko nahiz ezkerreko eskuan, hurrenez hurren.

Bestalde, administrazio publikoei, horrela eskatzen duen edozein interesduni eta haien eginkizunak egiteko datu horiek behar dituzten beste erakunde batzuei publizitatea eta informazioa emateko beharra ere badute. Eginkizun hori funtsezkoa da trafikoa juridikoa segurua izan dadin, eta Udalei dagokie, egoera bakoitzean, kale eta eraikinen zenbaki eta errotulu egokiak ziurtatzea, administrazioak burutzen dituen ahalmen publikoen eremuan dagoen ofizialtasun izaera baita.

lido horri jarraiki, azpimarratu beharrekoa da betekizun horiek udal organo eskudunei dagozkien udal erabakiak hartzea eskatzen dutela, legez xedatutako araudi eta jarraibideen arabera. Legezko testuinguru honetan, ezin da funtzio publiko hori ordezkatu edota urratu kaltetutako herritar gehienek horrela nahi izanagatik. Hala ere, legezko hainbat aukeren artean, Udalak herritarren artean eraikinak zenbatzeko adostasunik handiena lortzen duen proposamena onar dezake, beti ere hartutako konponbidea legearen arabera bada.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

7/2010 GOMENDIOA, apirilaren 23koa, Armiñongo Udalari egina

Aurretik izapideak eginda, (...) kaleko atalondoak korrelatiboki eta bikoitzasunik gabe zenbatzea, gai hau arautzen duten legezko arau eta jarraibideak kontuan hartuta.

